FUNDACIÓN
BILBAO BASKET
FUNDAZIOA

# Fundación Bilbao Basket Fundazioa Txostena

24-25 denboraldia

FUNDACIÓN
BILBAO BASKET
FUNDAZIOA

# Edukien indizea


1. BILBAO BASKET FUNDAZIOA
   - 1.1. Aurkezpena
   - 1.2. Batzordea
   - 1.3. Instalazioak

2. FUNDAZIOAREN ATALAK
   - 2.1. Kirol-arloa
   - 2.2. Arlo soziala- BB Soziala
   - 2.3. Ingurumen-arloa - Bide Ber(d)ean
   - 2.4. BB Lab

3. BESTELAKO AKZIOAK






# 1. FUNDAZIOA

1.1. Aurkezpena
1.2. Batzordea
1.3. Instalazioak



# 1. BILBAO BASKET FUNDAZIOA

## 1.1 Aurkezpena

Txosten hau **2024ko uztailaren 1etik 2025eko ekainaren 30era bitartean (24-25 denboraldia)** garatutako jarduerei dagokie, **FUNDACIÓN BILBAO BASKET FUNDAZIOAk** abenduaren 28ko 257/2007 Foru Dekretuaren arabera lehentasunezkotzat hartutako jarduerak egiteko jasotako ekarpenen kontura.

Txosten honen irismenari dagokionez, iraunkortasunari buruzko ikuspegi osoa eskaintzea da, bai gure emaileen ekarpenei buruzkoa, bai haien aplikazioari buruzkoa, zenbait proiektu eta jarduera-programaren bidez.



# 1. BILBAO BASKET FUNDAZIOA

## 1.1 Aurkezpena

Fundazio gisa ditugun helburuak ahaztu gabe, aurten ere bat egin nahi dugu Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Agenda 2030eko konpromisoarekin, eta gure ahalegina Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) lerrokatu nahi dugu.

Bilbao Basket **Mundu Ituneko Sarean parte** hartzen duen estatuko lehen saskibaloi-taldea da.

Era berean, Bilbao Basket **Emakunderen berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizien aldeko Herri Itunarekin** bat egin duen lehen saskibaloi kluba bihurtu da.

Bilbao Basket ere **Bilboko Udalaren Balioen Gutunari** atxikita dago.

# 1. BILBAO BASKET FUNDAZIOA

## 1.1 Aurkezpena

**Bilbao Basket, 2030 Agendarekin bat**

Bilbao Basketek zuzenki eragiten du:

- 1 — Bilbao Basketek bere jardueraren bitartez sortutako inpaktu ekonomiko zuzena eta zeharkakoaren bidez pobreziaren murrizketan eragiten du.
- 3 — Bilbao Basketek kirolaren eta elikadura jasangarriaren bidez bizimodu osasuntsuaren garapena sustatzen du.
- 4 — Bilbao Basketek bere balio-heziketa eta kanteraren filosofiaren bidez kalitatezko hezkuntzan eragiten du. Gainera, partiduak erabiltzen ditu gizartearentzat garrantzitsuak diren kausak zabaltzeko.
- 5 — Bilbao Basketek kirola erramintatzat dauka genero-berdintasunaren eta emakumeen ahalduntzearen alde.
- 8 — Bilbao Basketek Bizkaiko ekonomian eta enpleguan inpaktu gehigarria sortzen du, klub bezala duen jardueraz gain.
- 10 — Bilbao Basket inklusio sozialerako elementu erraztailea izatea bilatzen du, bereziki kolektibo hauskorrentzat.
- 11 — Bilbao Basket Bizkaia inklusiboagoa, seguruagoa, erresilienteagoa eta jasangarriagoa bilakatzeko elementu gakoa da.
- 13 — Bilbao Basketek Bide Ber(d)ean proiektuaren bidez aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan liderra izan nahi du.
- 17 — Bilbao Basketek sektore pribatu eta publikoko entidade desberdinekin aliantza-sorkuntza sustatzen du.

# 1. BILBAO BASKET FUNDAZIOA

## 1.1 Aurkezpena

### Bilbao Basket, 2030 Agendarekin bat

Bilbao Basket Fundazioak kirolaren esparruan izan ditzakeen kolaborazioek eragina duten beste GJH batzuk:

| | | | |
|---|---|---|---|
| 2 | Kirolaren inguruko ekosistema dieta osasungarri baten beharraren, janariaren alferrikako galtzearen kontzientziaren eta nutrizioaren garrantziaren transmisioan lagungarria da. | 12 | Baliabide naturalen babesa eta kontsumo jasangarria kirolaren inguruko aliantza eta kolaborazioei esker mesedetua bilakatzen da. |
| 6 | Kirolak uraren kudeaketa jasangarriaren alde egin dezake honen kontsumoa gutxitzen eta berrerabilpena sustatzen duten neurrien bidez. | 15 | Kirola ekosistemen babesari erlazionatutako hezkuntzarako eta praktika onuragarrietarako plataforma egokia eskaintzen du. |
| 7 | Kirol-jarduera aurrera eramaten den instalazioetan kontaminatzen ez duen energia erabili dezakete, atmosferara igorritako emisioak gutxituz. | 14 | Itsaseko bizitza eta ekosistemen babesaren kontzientzia pizteko lagungarriak bilakatzen dira kirolan oinarritutako sentsibilizazio-kanpainiak. |
| 9 | Kirolak industriaren garapenean laguntzen du azpiegituren eraikuntzaren edota dagoeneko daudenen hobekuntzaren bidez. Hala, mugikortasun jasangarriaren erreferente bihurtu daiteke. | 16 | Kirolak giza-baliabideen errespetua bermatzeko balioen goraipatzearen eta solidaritearen aldeko aliantzen sorkuntzan egundoko potentziala du. |

FUNDACIÓN
BILBAO BASKET
FUNDAZIOA

# 1. BILBAO BASKET FUNDAZIOA

## 1.1 Aurkezpena

Bilbao Basketek bat egin zuen 2020an Giza Eskubideen, Lan Eskubideen, Ingurumenaren eta Ustelkeriaren aurkako Borrokaren Hamar Printzipioak Babesteko **Munduko Itunarekin**. Horrela, NBEren Munduko Itunaren nazioarteko ekimen horren parte den **estatuko lehen saskibaloi-kluba** da. Urteko Aurrerapen Memoriaren bidez, iraunkortasunaren arloan egiten ditugun jarduerei buruzko informazio zehatza ematen du.

Konpromiso horretatik abiatuta, BB Fundazioaren jarduera eta proiektu guztiak, gurekin lan egiten duten kolektiboei zuzenduta daude eta Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako **2030 Agendarekiko konpromiso** honen bidez bideratuta daude, gure **ahaleginak Garapen Iraunkorrerako Helburuekin (GIH)** lerrokatuz.

Pacto Mundial
Red Española

### HELBURUAK

Bilbao Basketek ACBko klub jasangarriena izatea du helburu:

- **2030eko GJHen ildotik ekintza propioak sustatzea**, bakarrik edo beste erakunde batzuekin lankidetzan.
- **Jasangarritasunarekiko konpromisoa, GJHak, klimaren aldeko ekintza eta gure gizartea komunikatzea**, bultzatzea eta dinamizatzea gure gizarte-masaren, Bilboren, Bizkaiaren eta gure ondorengo inguruneen artean.

FUNDACIÓN
BILBAO BASKET
FUNDAZIOA

# 1. BILBAO BASKET FUNDAZIOA

## 1.1 Aurkezpena

Bilbao Basketek **Emakundek emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak eta berdintasuna bultzatzeko Herri Itunarekin** bat egin du, eta, horri esker, konpromisoarekin bat egin duen **lehen saskibaloi kluba da.**

Otsailean hasitako prozesu baten emaitza da atxikimendua: Emakundeko talde teknikoak eta Bilbao Basketek elkarrekin lan egin dute, klubak bere gain hartzen dituen konpromiso zehatzak definitu arte, **berdintasunean aurrera egiten laguntzeko eta indarkeria matxistarik gabeko herrialde bat eraikitzen laguntzeko.**

### BILBAO BASKETEN KONPROMEZUAK

**Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren prebentzioaren Arloan.**

- Bilbao Basketeko eta bere enpresa elkartuetako langile guztiak sentsibilizatzea sexu-jazarpenaren eta sexu-arrazoiengatiko jazarpenaren aurkako prebentzio- eta jarduera-arloan, eta laneko sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako protokoloa ezartzea eta urtero berrikustea.

**Gizonen eta haurren inplikazioaren eremuan.**

- Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren inguruan harrobiko jokalariak eta Bilbao Basket Lab-i atxikitako klubetako gainerako jokalariak sentsibilizatzea.
- Urtero martxoaren 8aren eta azaroaren 25aren inguruan komunikazio-ekintzak egitea, Bilbao Basketen jarduera eremuan berdintasuna sustatzeko

# 1. BILBAO BASKET FUNDAZIOA

## 1.2 Batzordea

Fundazioaren batzordeak kide hauek ditu

- **Lehendakaria**: Javier Larrañaga Aretxederra
- **Batzordekide:** Xabier González Vegas
- **Batzordekide:** María del Henar Arestizabal Pastor
- **Idazkari ez-patronoa:** Carlos Marín Pablos

# 1. BILBAO BASKET FUNDAZIOA

## 1.3 Instalazioak

Bilbao Basket Fundazioaren egoitza Gran Via kaleko 80. zenbakian dago (Bilbo).

Fundazioak Club Bilbao Basketekin batera lan egiten du proiektu guztiak eta ekintza guztiak ondo garatzeko.

Gure misioak ez luke zentzurik izango saskibaloi taldearen lankidetza estu eta ikusgarritasunik gabe eta gizartearekin duen konpromisorik gabe.

Denboraldi honetan, Bizkaiko Saskibaloiaren egoitza eta erreferentea izango den Artxandako instalazioetan gure jarduera lantzen hasi gara.



# 1. FUNDAZIOAREN ATALAK

2.1. Kirol-arloa
2.2. Arlo soziala – BB Soziala
2.3. Ingurumen-arloa – Bide Ber(d)ean
2.4. BB Lab

FUNDACIÓN
BILBAO BASKET
FUNDAZIOA

# 2. FUNDAZIOAREN ATALAK

## 2.1 Kirol-arloa

### KANTERA

**Sei talde** (**60 jokalari**)

- **Kadete Berezia (Infantilak):** 2010-2011 jokalariak
- **Euskal Ligako Kadetea:** 2008-2009 jokalariak
- **Junior:** 2006-2007 jokalariak
- **Junior Nazionala:** Santurtzi ST klubarekin elkarlanean. 2006-2007 jaiotakoak.
- **3ª FEB:** 2005 edo lehenago jaiotakoak
- **BB Up (Aniztasun funtzionala):** 2000-2005 jokalariak

### ESKOLAK

**Bizkaian banatutako sei egoitza:**

- Club Deportivo
- Muskiz
- Sodupe
- Sopuerta
- Urretxindorra
- Gaztelueta Ikastetxea

### KANPUSA

**Udan, Gabonetan eta Aste Santuan Bizkaian banatutako bost egoitza:**

- Bilbao Arena
- PIN (BEC)
- Lauaxeta
- Irlandesas
- Laredo

FUNDACIÓN
BILBAO BASKET
FUNDAZIOA

# 2. FUNDAZIOAREN ATALAK

## 2.1 Kirol-arloa

### KANTERA

Kantera klubaren zutabe garrantzitsuenetako bat da, Bilbao Basketeko enbaxadore nagusiak baititugu. Hori dela eta, garrantzitsua da jokalari guztiek gure balioak kontuan izatea:

**1) Talde-lana:** Kantera gaitasunak batzeko borondate inklusiboarekin sortu da, klubak, ikastetxeak eta erakundeak proiektu komun batean sartuz.

**2) Prestakuntza:** Prestakuntzaren bidez, teknikarien eta jokalarien maila hobetzea, ez bakarrik kirol arloan, baita pertsona gisa ere.

**3) Zintzotasuna:** Leialtasuna eta konpromisoa proiektuarekin bat egiten duten kirolariekin, haien familiekin eta jatorrizko klubekin.

**4) Osotasuna:** konpromisoa, etengabeko ahalegina, pertseberantzia, proiektuaren lan-ildoaren funtsezko balioak.

Entrenatzaile, prestatzaile fisiko eta fisioterapeuten staff bat dugu, guztira **23 profesional** egiten dituena.

Kanteraren barruan **4 emakume** entrenatzaile egotea azpimarratzen dugu, eta kopurua handitzen jarraitu nahi dugu hurrengo denboraldiei begira.

# 2. FUNDAZIOAREN ATALAK

## 2.1 Kirol-arloa

KANTERA

SENIOR 3ª FEB



# 2. FUNDAZIOAREN ATALAK

## 2.1 Kirol-arloa

### KANTERA

#### JUNIOR



# 2. FUNDAZIOAREN ATALAK

## 2.1 Kirol-arloa

### KANTERA

JUNIOR - SANTURTZI



FUNDACIÓN
BILBAO BASKET
FUNDAZIOA

# 2. FUNDAZIOAREN ATALAK

## 2.1 Kirol-arloa

### KANTERA

#### EUSKAL LIGAKO KADETEA



FUNDACIÓN BILBAO BASKET FUNDAZIOA

# 2. FUNDAZIOAREN ATALAK

## 2.1 Kirol-arloa

### KANTERA

#### KADETE BEREZIA



FUNDACIÓN
BILBAO BASKET
FUNDAZIOA

# 2. FUNDAZIOAREN ATALAK

## 2.1 Kirol-arloa

### KANTERA

BBUP



# 2. FUNDAZIOAREN ATALAK

## 2.1 Kirol-arloa

### LANKIDETZA-HITZARMENA

2024ko maiatzaren 4an, **Bizkaiko saskibaloi ingurua bateratu eta proiektu indartsuago bat** aurrera eramateko asmoz, Bilbao Basketek lankidetza hitzarmena aurkeztu zuen, Bilboko kluba lurraldeko beste **73 klubekin elkartuz**.

Akordio horri esker**, 10.000 kirolarik baino gehiagok** erakundearen aterkipean egoteko aukera izango dute, Bizkaiko jokalari talentudunak elitera hurbilduz.

Era berean, Bilbao Basketek **kirol eta kudeaketa arloko prestakuntza** eskainiko die klub horietako entrenatzaile, teknikari eta zuzendariei, eta hitzartutako klubetako zuzendaritza eta staff guztientzako prestakuntza tekniko, taktiko eta fisikoari buruzko aholkularitza eskainiko du.






# 2. FUNDAZIOAREN ATALAK

## 2.1 Kirol-arloa

### ESKOLAK

Gazteenen artean kirola eta bizitza osasuntsua sustatzea da gure helburu nagusietako bat.

BB Eskolak 5 eta 12 urte bitarteko umeei hezkuntza eta prestakuntza zerbitzua emateko asmoa du, eta parte-hartzaileen gozamena eta dibertsioa izango dira helburuak lortzeko gakoak

- **Saskibaloia irakastea**, kirolari txikien etapa eta ezaugarrien arabera, eta praktika orientatzea, prestakuntzarako eta integraziorako bitarteko gisa.
- **Saskibaloia ezagutzea**, bertsio pedagogiko eta didaktiko ezberdinetan.
- Kirol honen **balioak sustatzea** (errespetua, autoestimua, motibazioa, berdintasuna, adiskidetasuna).

Bilbobus bbk



| +200 | 40% | 60% |
|---|---|---|
| Jokalari | Neskak | Mutilak |

# 2. FUNDAZIOAREN ATALAK

## 2.1 Kirol-arloa

### BILBAO BASKET – OCCIDENT KANPUSA

Kanpusaren hasierako helburuak **helburu hezitzaileekin kirol kultura eta elkarbizitza sustatzea** dira, alderdi ludikoa alde batera utzi gabe, **garapen indibidual eta soziala** landuz, eta giza **prestakuntza integrala** sendotzen duten balioak sustatuz.

Bilbao Basket Fundazioak, kanpusak garatzeko, **Occident-ekin** lankidetza estua du, bai eta Bilbao Basketen langileen, azpiegituren eta bitartekoen laguntza ere.

Occident



**+1200** Jokalari

**51%** Neskak

**49%** Mutilak

FUNDACIÓN
BILBAO BASKET
FUNDAZIOA

# 2. FUNDAZIOAREN ATALAK

## 2.1 Kirol-arloa

### BILBAO BASKET X3

3x3 proiektua, Bilbao Basketen babespean, 3 ardatzez osatuta dago:

BILBAO JOKOAN

BILBAO MINERS

BIZKAIA NEXT GEN

# 2. FUNDAZIOAREN ATALAK

## 2.1 Kirol-arloa

### BILBAO BASKET X3: BILBAO JOKOAN

Bilbao Jokoan ikuskizunaren, dibertsioaren eta komunitatearen aldeko apustua da. Txapelketa irekiak, kaleko ekitaldiak eta saskibaloia denengana iristeko jarduerak antolatzen ditugu.

Ekainaren 13tik 15era jokatu den 2025eko edizio honetan, adin eta **maila guztietako 800 jokalari baino gehiago bildu dira, 200 talde baino gehiagotan banatuta**, prestakuntza kategoriak, beteranoak eta mistoak barne.

Txapelketak **Bilboko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa** izan du, eta Areatzako espazio enblematikoa kirol, hiri-kultura eta bizikidetzako agertoki bihurtzearen aldeko apustua egin du.

Bizkaia foru aldundia diputación foral
Bilbao

BILBAO JOKOAN



# 2. FUNDAZIOAREN ATALAK

## 2.1 Kirol-arloa

### BILBAO BASKET X3: BILBAO MINERS

Bilbao Miners Bizkaian 3x3 saskibaloia mailarik altuenean ordezkatzen duen taldea da. Bilbao Basketen babespean jaiotako proiektu honek gorabidean dagoen modalitate hau bultzatzearen aldeko apustua egiten du, Bilbo erreferente gisa kokatuz estatuko eta nazioarteko panoraman. Tokiko ahaleginari, lehiakortasunari eta errotzeari lotutako nortasunarekin, Bilbao Minersek hiriaren izena darama 3x3ko ekitaldi nagusietara.

Taldeak gizonezko eta emakumezko kategoriak ditu. Ibon López de Letonaren zuzendaritza teknikoarekin, Miners taldeak eliteko rosterra bildu du, eta nazioarteko jokalariak eta euskal saskibaloiko erreferenteak izan dira bertan, besteak beste, **Unai Mendikote eta Gracia Alonso de Armiño.**

Bere ibilbide laburrean, Bilbao Minersek arrakasta garrantzitsuak lortu ditu dagoeneko, hala nola **Bilbao Jokoan PRO txapelketa bikoitza**, estatuko 3x3 txapelketako talderik lehiakorrenetako bat bihurtuz..



# 2. FUNDAZIOAREN ATALAK

## 2.1 Kirol-arloa

### BILBAO BASKET X3: BIZKAIA NEXT GEN

BIZKAIA
NEXT
GEN

Bizkaia Next Gen Bilbao Basketeko harrobian integratutako 3x3 saskibaloi akademia da, Bizkaiko talentu gazteak garatzeko eta trebatzeko sortua.

Bi urteko ibilbidearekin, akademiak goi mailako ingurune bat eskaintzen du, non jokalariek beren teknika, taktika eta egoera fisikoa hobetzen dituzten klubaren metodologiaren eta balioen arabera, lehiaketa profesionalerako prestatuz eta talde lana, azkartasuna eta joko txikian erabakiak hartzea sustatuz.

Bere lanari esker, akademiak **harrobiko jokalariak 18 urtez azpiko Espainiako selekzioan** kokatzea lortu du, eta **titulu autonomikoak eta nazionalak** bildu ditu, Espainiako iparraldean 3x3ko prestakuntzan erreferente gisa posizionatuz



*U18 mailan Espainiako txapeldunorde*

FUNDACIÓN BILBAO BASKET FUNDAZIOA

# 2. FUNDAZIOAREN ATALAK

## 2.1 Kirol-arloa

### BILBAO BASKET X3



# 2. FUNDAZIOAREN ATALAK

## 2.1 Arlo soziala– BB Soziala

### PARTIDU BAT, KAUSA BAT

“Partidu bat, kausa bat” 2030 Agendari hertsiki lotutako proiektua da. Bertan, Bilbao Arenan jokatzen ditugun ACB Ligako eta FIBA Europe Cupeko partidak elkarte batekin lotzen ditugu, eta, ondorioz, bere kausarekin.

Proiektu honen helburu nagusia Bizkaiko gizarte-erakundeek Bilbao Basket Klubeko zaleen artean egiten duten lana eta dituzten arrazoiak ikusaraztea da, bai eta boluntarioak animatzea.
Bizkaian 120.000 boluntario baino gehiago ditugu, gure lurraldearen elkartasunaren eta eskuzabaltasunaren seinale.

**Bizkaia Gara-rekin** lankidetzan aritzen gara erakundeak erakartzeko.

**ACB LIGA**

| ONG | JARDUNALDIA | DATA | ONG | JARDUNALDIA | DATA |
|---|---|---|---|---|---|
| HIRUKIDE | **1 –** BREOGÁN | 2024/09/24 | AMNISTIA INTERNACIONAL | **21 –** GIRONA | 2025/03/02 |
| KCD ONG | **3 –** MADRID | 2024/10/13 | AS. GREGORIO YBARRA | **23 –** TENERIFE | 2025/03/16 |
| BULTZATU | **5 –** VALENCIA BASKET | 2024/10/27 | SOLIDARIDAD INTERNACIONAL | **24 –** GRANADA | 2025/03/23 |
| GOIZTIRI | **8 –** JOVENTUT | 2024/11/17 | IGUALDAD FEEKOR | **26 –** GRAN CANARIA | 2025/04/05 |
| NORAI | **10 –** BASKONIA | 2024/12/08 | ZAINTZEA | **29 –** MURCIA | 2025/04/27 |
| eCIVIS | **12 –** MANRESA | 2024/12/22 | EMAN ESKUA | **31 –** CORUÑA | 2025/05/11 |
| FUND. EGUZKILORE | **14 –** ANDORRA | 2025/01/02 | AVIFES | **32 –** ZARAGOZA | 2025/05/18 |
| LEVAR | **16 –** UNICAJA | 2025/01/11 | ASPANOVAS | **34 –** BARÇA | 2025/05/30 |
| FUND. MIRANDA | **19 –** LLEIDA | 2025/02/02 | | | |

# 2. FUNDAZIOAREN ATALAK

Bizkaia foru aldundia diputación foral · Bilbao

## 2.1 Arlo soziala– BB Soziala

### BIHOTZKANTXA

Bihotzkantxa ekimenak **saskibaloiko entrenamendu kontrolatuak** eta dinamizatuak egiten ditu **bazterketa arriskuan dauden herritarrak** bizi diren eremuetan.

Bilbao Basketetik saskibaloia **gazte ahulenen integrazio eta inklusiorako tresna gisa** ikusten dugu. Hori dela eta, Bihotzkantxan **Kanterako gure entrenatzaileak** dira entrenamenduak prestatzeko eta zuzentzeko arduradunak.

Gaur arte, Bilboko hainbat auzotan, **Atxurin, Errekalden eta Otxarkoagan** esaterako, parte hartu dugu, eta 58 parte-hartzaile ditugu, hazten jarraitzeko asmoz.

**Bilboko Udaleko Giza Eskubide, Bizikidetza, Lankidetza eta Kulturartekotasun Sailaren** eta **Bizkaiko Foru Aldundiko Lankidetza eta Aniztasun Zuzendaritzaren** laguntza dugu programa hau aurrera eramateko.






FUNDACIÓN
BILBAO BASKET
FUNDAZIOA

# 2. FUNDAZIOAREN ATALAK

## 2.1 Arlo soziala– BB Soziala

### BB UP

BBUP **autonomia arteko txapelketa** bat da, eta Fundazio gisa dugun jardueran **aniztasun funtzionala duten pertsonen kolektiboa** integratzean datza, Bizkaian saskibaloiaren praktika sustatzeari eta kirol-balioak hezkuntza-tresna gisa ezartzeari lotuta.

Ekimen horri esker, **trebetasun sozialak, enpatia eta pertsonaren garapen soziala** sustatzen dira. Laguntza fisikoa zein psikologikoa da.

BB UP Txapelketa arlo horretan **erreferente gisa ezartzea** nahi dugu, eta inklusiorako tresna handia garela uste dugu.

BB UP Txapelketa **burutzeko Bilbao Arena, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritza, Euskadi Basque Country (Eusko Jaurlaritza), IDOM, Saunier Duval eta Lacturaleren laguntza dugu..**



# 2. ÁREAS DE LA FUNDACIÓN

## 2.1 Arlo soziala – BB Soziala

### BB EXPERIENCE

BB Experience **enpresa bereko pertsonen arteko loturak indartzeko jardunaldi korporatibo** bat da. Jardunaldiak hiru jarduera nagusi ditu: **Motibazio hitzaldia, Team Building partidu batean, eta amaierako hausnarketa**.

Bilbao Basketek **saskibaloia ardatz nagusitzat** hartzen du, eta lankidetza, talde-lana, kide izatearen sentimendua eta enpresa-kultura hobetzea du helburu.

Aurten, hainbat enpresaren laguntza izan dugu, bai familian bai enpresen arteko topaketetan esperientzi jardunaldiak martxan jartzeko.





FUNDACIÓN
BILBAO BASKET
FUNDAZIOA

# 2. ÁREAS DE LA FUNDACIÓN

## 2.1 Arlo soziala – BB Soziala

### EUSKARAREN SUSTAPENA

Klub euskalduna garen heinean, gure kultura, ohiturak eta gizartea maila nazionalean eta europarrean zabaltzeko ardura dugu. Konpromiso horren barruan eta seinale gisa, euskarak gure identitatearen parte izan behar du, gure harrotasunaren seinale. 24-25 denboraldi honetan, **Euskararen Bidean ziurtagiria lortu dugu Bai Euskarari-ren eskutik.**

Plan honen bidez, Bilbao Basketek helburu hauek ditu:

- Euskararekiko konpromisoan eta inplikazioan erreferente bihurtzea.
- Kirol taldean euskararen presentzia areagotzea.
- Kirolarien, teknikarien eta klubeko beste eragile batzuen plangintzarekin bat egitea.
- Zaleak euskararen sustapenean inplikatzea.
- Bikain ziurtagiria lortzea epe ertainean.

Euskararen sustapena **Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritzarekin bat dator.**

euskararen bidean

Bizkaia foru aldundia diputación foral

**AKZIOAK**

- **Barne-Komunikazioa** (Bai Euskarari...)
- **Kanpo-komunikazioa** (sare sozialak, euskarazko emanaldia, bezeroarentzako arreta...)
- **In game jarduerak** (speaker, bideomarkatzailea, musika)
- **Entrenatzaileak eta langileak**
- **Beste ekintza batzuk** (abonatuen kanpaina, Gabonetako iragarkiak...)

FUNDACIÓN
BILBAO BASKET
FUNDAZIOA

# 2. FUNDAZIOAREN ATALAK

## 2.3 Ingurumen-arloa– Bide Ber(d)ean

### KARBONO AZTARNA - ONDOAN

Jasangarritasunarekin dugun konpromisoaren barne, eta gure partner-a den **ONDOAN-**ekin lankidetza estuan, gure jardueraren $CO_2$ isuriak zein diren landu dugu denboraldi honetan, 4 eremutan:

| | |
|---|---|
| LIGA ENDESA | FIBA EUROPE CUP |
| ENTRENAMIENTOS | OFICINAS |

**HUELLA DE CARBONO ACTIVIDAD TOTAL:**

650,23 T $CO_2$ eq



FUNDACIÓN
BILBAO BASKET
FUNDAZIOA

# 2. FUNDAZIOAREN ATALAK

## 2.3 Ingurumen-arloa– Bide Ber(d)ean

Ondoan close solutions

### KARBONO AZTARNA - ONDOAN

**90,59% FanTravel Mugikortasuna**

**Partiduko ikusleko HC:**

**Liga ENDESA**

**2,89 kg $CO_{2\ eq}$**

**FIBA Europe Cup**

**3,85 kg $CO_{2\ eq}$**



FUNDACIÓN
BILBAO BASKET
FUNDAZIOA

# 2. FUNDAZIOAREN ATALAK

## 2.3 Ingurumen-arloa– Bide Ber(d)ean

Hazigreen
research

### MUGIKORTASUN-INKESTA: GURE ZALEGOA






# 2. FUNDAZIOAREN ATALAK

## 2.3 Ingurumen-arloa– Bide Ber(d)ean

### MUGIKORTASUN-INKESTA: KLUBAREKIKO LOTURA

¿Qué relación tienes con el Bilbao Basket?




¿A cuántos partidos acudes de los que juega el Bilbao Basket en el Bilbao Arena?



# 2. FUNDAZIOAREN ATALAK

## 2.3 Ingurumen-arloa– Bide Ber(d)ean

MUGIKORTASUN-INKESTA: KONPAINIA

¿Con quién vas a Bilbao Arena?




¿Cuántas personas en total?




FUNDACIÓN BILBAO BASKET FUNDAZIOA

Hazigreen research

# 2. FUNDAZIOAREN ATALAK

## 2.3 Ingurumen-arloa– Bide Ber(d)ean

### MUGIKORTASUN-INKESTA: MUGIKORTASUN-OHITURAK

Hazigreen research

**En tu vida diaria**




**En las visitas al Bilbao Arena**




Pertsonen % 75 modu jasangarrian etortzen da Bilbao Arenara; % 25 autoz edo motoz joaten da. 2023tik %5ean hobetu du.

# 2. FUNDAZIOAREN ATALAK

## 2.3 Ingurumen-arloa– Bide Ber(d)ean

### MUGIKORTASUN-INKESTA: KONTZIENTZIATZEA




Bilbao Basketeko zaleen %90ak adierazi du oso edo nahiko kezkatuta dagoela Ingurumenaren egoerarekin eta Klima Aldaketaren ondorioekin.

0tik 10era bitarteko puntuazioan (0 ez da batere kezkatua eta 10 erabat kezkatua**), bere kezkaren batez bestekoa 8,5ekoa da ingurumenari dagokionez, eta 8,9koa klima aldaketari buruz galdetuz gero**.

FUNDACIÓN
BILBAO BASKET
FUNDAZIOA

# 2. FUNDAZIOAREN ATALAK

## 2.4 BB Lab

BBLAB proiektu berritzaile bat da, **kirolarekiko grina gure sektorearekiko eta kirol-industriarekiko sentikorrak diren interes-arloekin uztartzen** duena, eta gure kolektiboetan jartzen du arreta: haurtzaroan, gaztaroan, familian, Bizkaiko klubetan...

Interes-eremu horiek dira gure sektorearen eta gure kirolarien funtzionamendu onerako eta ongizaterako gehien sustatzen ditugunak: **osasuna, nutrizioa, kirol-teknika, kirol-kudeaketa eta -berrikuntza, besteak beste.**

**Metodoa Tailerretan, Kliniketan, Masterclass-etan eta Prestakuntzetan** oinarrituta dago, eta horiek lagunduko digute gure egunerokotasunak ondo funtzionatzeko protokoloak eta teknikak egiten eta ezartzen.

BB LABek **Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu, Kohesio Sozial eta Berdintasun Saileko Zuzendaritza** Nagusiaren bultzada jasotzen du.

### HELBURU ESTRATEGIKOAK

- Haurren, gazteen eta familien inguruko ikerketa.
- Haurren eta gazteen osasunean erreferenteak izatea.
- Erreferentziako markekin batera garatzea.
- Eragin soziala.

### EDUKIAK

- Haur eta gazteen hobekuntza fisiko eta mentalerako laborategia. Ohitura osasungarriak.
- Enpresekin, klubekin, unibertsitateekin, ikerketa-zentroekin, start-upekin eta beste kirol-erakunde batzuekin lankidetzan jarduteko gunea.
- Erreferentzia-zentroa: Adingabearen babesa.
- Adingabeei zuzendutako teknologiak, osasuna, kirola eta aisia oinarri hartuta.
- Adingabeen jarduera fisikoa sustatzen duten esperientzia berriak.
- Kirol-errendimendua hobetzea.
- Azken aurrerapenak dituen kirol-laborategia. Errendimendua hobetzea.
- Kirol- eta osasun-industriarekin lotutako negozio berriak.
- Fundazioak. Balioei eta eragin sozialari buruzko proiektuak.

# 2. FUNDAZIOAREN ATALAK

## 2.4 BB Lab

### Jarduera fisikoa

**Jarduera fisikoa**, komunitateen **ongizate orokorraren** eragile. **Osasunerako** begi-bistako onurez harago, jarduera fisikoak **gizarte-kohesioa** sustatzen du, **bizi-kalitatea hobetzen** du eta gizabanakoarengan eta gizarte osoarengan eragin positiboa duten ohitura osasungarriak sustatzen ditu.

### Nutrizioa

**Nutrizio-ohitura** osasungarriak txiki-txikitatik.





# 2. FUNDAZIOAREN ATALAK

## 2.4 BB Lab

### Loa

Kalitatea eta kantitatea, **atsedena** ere garrantzitsua da **haurraren garapenean**.

### Osasun Emozionala

**Bilbao Basketek Emozionalki Adimentsua den Lehen Kluba** izatea du helburu.



# 2. FUNDAZIOAREN ATALAK

## 2.4 BB Lab

### Adingabearen babesa

**8/2021 Lege Organikoa**, ekainaren 4koa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Erabat Babestekoa. Adingabeekin lan egiten duten erakunde guztien **betebeharrak**, kirol-erakundeenak barne:

- Arduraduna
- Prestakuntza.
- Protokoloak.

### Berrikuntza eta ekintzailetza

Proiektu honen helburu nagusia **gazteen artean sormena, lankidetza eta espiritu ekintzailea** sustatzea da, jarduera fisikoaren bidez **ongizatea hobetzearekin** lotutako erronkei eta aukerei heltzen dieten bitartean.



FUNDACIÓN BILBAO BASKET FUNDAZIOA

# 2. FUNDAZIOAREN ATALAK

## 2.4 BB Lab




**Jasangarritasun soziala**

Gure adingabeen eta haien familien artean **iraunkortasunari buruzko Klubaren filosofia irakastea.**

Bilbao Basketek bere eragina aprobetxatu behar du gure **lurraldean gizarte mugimendu integratzaile baten buru izateko.**

FUNDACIÓN BILBAO BASKET FUNDAZIOA

# 2. FUNDAZIOAREN ATALAK

## 2.4 BB Lab - saioak

24-25 denboraldian 8 prestakuntza saio egin dira Artxandan, eta hainbat gai interesgarri landu dira.

| DATA | GAIA | MINTZALARIA |
|---|---|---|
| **Urriak 1** | Kantera Metodoa | Mikel Torre |
| **Urriak 22** | Osasuna. Adikzioak. | Unai Garma |
| **Azaroak 18** | Kirol-bendaje funtzionala | Jon Novo, Lucas Guerrero eta Iñigo Betolaza |
| **Abenduak 19** | Adingabeekiko babesa | María del Mar Boillos eta Gonzalo Silió |
| **Urtarrilak 30** | Desgaitasuna, Saskibaloia eta Inklusioa | Josu Arenaza, Endika Ledesma eta Oier Bilbao |
| **Otsailak 11** | Nutrizioa eta Kirola (IMQ) | Camila Hernández |
| **Otsailak 26** | Kirol Errendimenduaren Gakoak (Emen4Sport) | Xavi Rabaseda eta Raúl García |
| **Maiatzak 13** | Kirol-Medikuntza (IMQ) | Markel Pérez |

# 2. FUNDAZIOAREN ATALAK

## 2.4 BB Lab - saioak

URRIAK 1 – PROIEKTUAREN AURKEZPENA ETA KANTERA METODOARI BURUZKO PRESTAKUNTZA






FUNDACIÓN BILBAO BASKET FUNDAZIOA

# 2. FUNDAZIOAREN ATALAK

## 2.4 BB Lab - saioak

OTSAILAK 26 - KIROL ERRENDIMENDUAREN GAKOAK – EMEN4SPORT









# 3. BESTELAKO AKZIOAK



# 3. BESTELAKO AKZIOAK

## Aktiboen dohaintza

**Objetivo**

Bilboko eta Bizkaiko gizartean garrantzitsuak diren erakundeei laguntzea.

**Akzioak**

- BAKUVAren zozketa solidariorako sarrerak Manresaren aurkako partidurako.
- Le Portelen aurkako partidurako sarrerak Caritaseko Errege-erreginen Erroskoian.
- Leioa Kambiako IV. Padel Txapelketako irabazleentzako sarrerak.

FUNDACIÓN
BILBAO BASKET
FUNDAZIOA

# 3. BESTELAKO AKZIOAK

## BOS Orkestrari bisita

**Helburua**

Klubaren eta Bilboko hiriaren arteko lotura indartzea, tokiko sustraitzearekiko eta lurraldeko kultura- eta jai-bizitzan integratzeko konpromisoa erakutsiz.

**Akzioa**

Surne Bilbao Basketen lehen taldeak eta bere talde teknikoak BOS Orkestra eta Coti bisitatu zituen.



# 3. BESTELAKO AKZIOAK

## Taldearen aurkezpena Bilborock-en

### Helburua

Babesleekin harremana sendotzea eta klubak bere enpresa eta gizarte ingurunearekin duen konpromisoa erakustea, Surne Bilbao Basketen errotzea eta lurralde nortasuna azpimarratuz

### Akzioa

Bilborocken lehen taldearen aurkezpena egin zen sponsor-en aurrean, jokalarien, klubaren eta babesleen arteko hurbiltasun eta interakzio espazio bat sortuz.






FUNDACIÓN
BILBAO BASKET
FUNDAZIOA



# 3. BESTELAKO AKZIOAK

## Kirolaren Gestioari buruzko jardunaldia - EHU

### Helburua

Esperientzia profesionala eta kirol-kudeaketaren ikuspegi praktikoa ikasleei hurbiltzea, haien prestakuntza integralean eta sektorerako funtsezko gaitasunen garapenean lagunduz.

### Akzioa

EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Kirolaren Kudeaketako Masterrean klase ematea, lehen mailako kirol klubetan kudeaketaren benetako kasuak eta ezagutzak partekatuz.



# 3. BESTELAKO AKZIOAK

## Mugikortasunaren Europako Astea

### Helburua

Garraio iraunkorraren erabilera sustatzea, ingurumenarekin dugun konpromisoaren parte gisa, **Bilboko Udaleko Mugikortasun Arloarekin lankidetzan.**

### Akzioa

"Ven a encestar con el Bilbao Basket" ekitaldia abian jartzea.

Bilbao



2024ko irailaren 25a

# 3. BESTELAKO AKZIOAK

## Kirolaren Eguna - EHU

eman ta zabal zazu

**Helburua**

Saskibaloia eta kirolaren balioak unibertsitateko komunitateari hurbiltzea, parte-hartzea, bizitza aktiboa eta bizikidetza sustatuz.

**Akzioa**

Kirolaren Egunean saskibaloiko jarduerak eta jokoak dinamizatzea EHUn.



# 3. BESTELAKO AKZIOAK

## EHUn asteroko entrenamenduak

eman ta zabal zazu

### Helburua

Saskibaloia eta kirolaren balioak unibertsitateko komunitateari hurbiltzea, parte-hartzea, bizitza aktiboa eta bizikidetza sustatuz.

### Akzioa

Leioako Campusean astean entrenamendu bat abian jartzea EHUko ikasleentzat.



FUNDACIÓN BILBAO BASKET FUNDAZIOA

# 3. BESTELAKO AKZIOAK

## Master hasierako hitzaldia – Adingabeenganako Babesa



### Helburua

Surne Bilbao Basketeko harrobiaren balioak unibertsitateko komunitateari transmititzea, klubak haurren babesarekin eta gazteen garapenarekin duen konpromisoa saskibaloiaren bidez indartuz

### Akzioa

Mikel Torre harrobiaren koordinatzaileak hitzaldi bat eman zuen EHUko Haurren Babeserako Masterrean.

Bi beka gure hitzartutako klubentzat.

FUNDACIÓN
BILBAO BASKET
FUNDAZIOA

# 3. BESTELAKO AKZIOAK

## Un Etxea Fundazioaren Mahai-ingurua

### Helburus

UN ETXEAko Gobernu Kontseiluko kide gisa, Bilbao Basket Fundazioaren inplikazioa indartzea berrikuntza eta konpromiso soziala sustatzen duten ekimenetan.

### Akzioa

Gizarteak garapen jasangarria eta eraldaketa soziala lortzeko dituen erronkei buruz hausnartzeko mahai-inguruan parte hartzea.



2024ko urriaren 14a

# 3. BESTELAKO AKZIOAK

## Sports Cities Opposing Racism in Europe Mintegia

### Helburua

Kantxa barruan eta kanpoan inklusioa eta aniztasuna sustatzea, saskibaloian eta gizartean arrazakeriaren aurkako borrokan aktiboki lagunduz.

### Akzioa

Mikel Torre (harrobiko koordinatzailea) etac Bright Martins (proiektuaren entrenatzailea) Bihotz Kantxa Proiektuari buruz hausnartzeko mahai-inguru batean parte hartu zuten.






FUNDACIÓN
BILBAO BASKET
FUNDAZIOA

# 3. BESTELAKO AKZIOAK

## EHko Down Sindromea Fundazioaren egutegia

### Helburua

Gizartea sentsibilizatzea Down sindromea duten pertsonen errealitateari buruz, eta haien inklusioa babestea, klubak aukera berdintasunarekin duen konpromisoa ikusaraziz.

### Akzioa

Bassala Bagayokoren parte hartzea Euskal Herriko Down Sindromea Fundazioaren 2025eko Egutegiaren ekaineko orrian.



FUNDACIÓN
BILBAO BASKET
FUNDAZIOA

# 3. BESTELAKO AKZIOAK

## Bridgestone Herri-Bizikletaldi Solidarioa

**Helburua**

Klubak Bilboko jasangarritasunarekin eta osasunarekin duen konpromisoa indartzea, tokiko errotzea eta mugikortasun jasangarria sustatzen duten ekimenetan aktiboki parte hartuz.

**Akzioa**

Ekitaldiaren ikusgarritasuna eta hedapena, presentzia instituzionala, sare sozialetako laguntza eta ekitaldia ezagutarazteko eduki espezifikoak emanez.



2024ko azaroaren 28a

# 3. BESTELAKO AKZIOAK

## Haszten-en 10. urteurrenaren ekitaldia

### Helburua

Bilbao Basketek kirolaren bidez gizarteratzearekin eta aukera berdintasunarekin duen konpromisoa indartzea.

### Akzioa

Bilbao Basket, Isabel Iturbe presidenteak ordezkatuta, Haszten elkartearen 10. urteurreneko galan saritu zuten, kirol inklusiboko ekimenetan emandako laguntzagatik eta parte hartze aktiboagatik.



FUNDACIÓN
BILBAO BASKET
FUNDAZIOA

# 3. BESTELAKO AKZIOAK

## “Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren bidez inklusiorako sareak ehuntzen” IV. Foroaren Mahai Ingurua

### Helburua

Kirolaren bidez gizarteratzea eta aukera berdintasuna bultzatzea, Surne Bilbao Basketen esperientzia eta konpromisoa partekatuz lankidetza sareak sortzeko.

### Akzioa

Klubaren ordezkaritza “Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren bidez inklusiorako sareak ehuntzen” IV. Foroaren mahai-inguruan.



# 3. BESTELAKO AKZIOAK

## Panpin-Jaurtiketa – Cruz Roja

Cruz Roja
Gurutze Gorria

### Helburua

Jokoaren emozioa bazterketa-arriskuan dauden familiekiko elkartasun bihurtzea.

### Akzioa

Baxi Manresaren aurkako partidaren atsedenaldian, panpin.jaurtiketa antolatu zen Gurutze Gorriarekin lankidetzan, eta jarraitzaileek panpinak jaurti zituzten, ondoren egoera ahulean zeuden haurrei emateko.






FUNDACIÓN BILBAO BASKET FUNDAZIOA

# 3. BESTELAKO AKZIOAK

## Ate irekidun entrenamendua

**Helburua**

Gure jarraitzaileekin loturak sendotzea, taldearen esperientzia gertutik bizitzeko eta elkarrekin une bereziak partekatzeko aukera emanez

**Akzioa**

Ate irekidun entrenamendua Gabonetan zale guztientzat Bilbao Arenan.





FUNDACIÓN BILBAO BASKET FUNDAZIOA

# 3. BESTELAKO AKZIOAK

## Basauriko Espetxean entrenamendua

### Helburua

Kirolaren bidez gizarteratzea sustatzea, ahaleginaren, errespetuaren eta gainditzearen balioak transmitituz.

### Akzioa

Klubeko kideek, Jaume Ponsarnau entrenatzailea, Bassala Bagayoko eta Tomasz Gielo barne, entrenamendu batean parte hartu zuten Basauriko Espetxeko presoekin.





FUNDACIÓN
BILBAO BASKET
FUNDAZIOA

# 3. BESTELAKO AKZIOAK

## Caritasekin Errosko Solidarioa

Caritas
Bizkaia

### Helburua

Surne Bilbao Basketek hiriko herritar ahulekin duen konpromiso soziala indartzea

### Akzioa

Isabel Iturberen parte hartzea Caritasen Errosko Solidarioan.





# 3. BESTELAKO AKZIOAK

## Ospitaletara bisita

### Helburua

Ospitaleratutako haurrei eta haien familiei babesa eta elkartasuna helaraztea, haien ongizate emozionalari lagunduz.

### Akzioa

Plantillako zenbait kidek Gurutzeta eta Basurtuko ospitaleetara bisita egin zuten Gabonetan, eta opariak banatu zituzten, pazienteekin eta haien familiekin elkarreraginean.





# 3. BESTELAKO AKZIOAK

## Unibertsitateen bisita

**Helburua**

ACB klub baten errealitate profesionala eta kirol kudeaketa unibertsitateko ikasleei hurbiltzea, haien prestakuntzarako esperientziak eta ezagutza praktikoak partekatuz.

**Akzioa**

Blanquerna – Ramón Llull Unibertsitateko Kirol-kudeaketa, Bilbao Arenan.

Europako Unibertsitateko Sport Technologies, Artxandan egindako entrenamendu batean.





# 3. BESTELAKO AKZIOAK

## Bilbao Damba Festival - Bilborock

### Objetivo

Kultura-aniztasuna eta inklusioa sustatzea, bizikidetza eta kolektiboen ikusgarritasuna sustatzen duten ekimenak babestuz.

### Acción

Bilbao Damba Jaialdiaren zabalkuntza klubaren komunikazio plataformak erabiliz.



# 3. BESTELAKO AKZIOAK

## ONU - Bilbao Sprint

### Helburua

Konpromiso sozialaren eta garapen jasangarriaren balioak sustatzea, klubak 2030 Agendarekin eta NBEren Garapen Jasangarrirako Helburuekin duen inplikazioa indartuz.

### Akzioa

BB Lab proiektua aurkeztea, klubak gizarte eta kirol berrikuntzan duen esperientzia partekatuz eta nazioarteko eragileekin lankidetza indartuz, helburu globalak lortzeko.






FUNDACIÓN BILBAO BASKET FUNDAZIOA

# 3. BESTELAKO AKZIOAK

## XIII Moda Solidarioaren desfilea

**Helburua**

Surne Bilbao Basketen konpromiso soziala indartzea, kolektibo zaurgarrien integrazioan eta ongizatean laguntzen duten ekimen solidarioak babestuz.

**Akzioa**

Klubeko ordezkariek XIII. Moda Desfile Solidarioan parte hartu zuten.




BILBAO BASKET 24/25

# 3. BESTELAKO AKZIOAK

## Garbiker

### Helburua

Hondakinen bereizketa zuzena eta edukiontzi horiaren erabilera egokia sustatzea, FIBA Europe Cupeko finalerdietako eta finaleko partiden ikusgarritasuna aprobetxatuz.

### Akzioa

Garbikerrek FIBA Europe Cupeko finalaurrekoetan eta finalean sustatutako ekintza informatiboak martxan jartzea, bertaratutakoen artean birziklatze egokia sustatzeko.






# 3. BESTELAKO AKZIOAK

## Afrika Eguna

### Helburua

Klubak Bilbon aniztasunarekin, inklusioarekin eta kulturarteko bizikidetzarekin duen konpromisoa indartzea, Afrikako kultura ikusarazten eta aitortzen lagunduz.

### Akzioa

Bright Martins eta Elvis Uderen dinamizazioa (3. FEBeko jokalariak) KO batean eta saskibaloi txapelketan.



FUNDACIÓN
BILBAO BASKET
FUNDAZIOA

# 3. BESTELAKO AKZIOAK

## Nazioarteko proiektua

### Helburua

Bilbao Basket Fundazioaren know-howa eta kirol bikaintasuna nazioartean erakustea, kluba saskibaloia prestatzeko erreferentziazko zentro gisa kokatuz.

### Akzioa

Norvegiatik eta Estatu Batuetatik etorritako nazioarteko bi bisitaren harrera, Bilbao Basketen metodologia eta lan egitura ezagutzeko.






# Eskerrik asko

BILBAOBASKET
surne seguros & pensiones

surne seguros & pensiones · bbk · Bilbao · Occident · IMQ · kutxabank · EL CORREO Información con valor · hummel · Nissan Blendio Kalauto · vueling · MEDRANO Obras y Servicios

emen4 Sport · azulmarino · LIN3S · LA SALVE Bilbao 1886 · Coca-Cola · Cadena SER Radio Bilbao · HGB Hotel Gran Bilbao · Bilbobus · podoactiva · alba · Jardín de Enekuri

Finisher · euskaltax · LOIZAGA · Mediaattack · adtiva comunicación creativa · eitb · SERINFOR · sidenor · Silken Hoteles · Yamaha deustomotocenter.com · GARBINDU Servicios integrales

Bilbao Port · lacturale · Grupo Intxausti · SDI · Cámara Asia · ekoiure · Rivera · AIXEDER SL · agaleus · Sushi Artist · vidrala

elrow · FOUR9S · ALTHENA Property experience · aud dat Expertos en Cumplimiento Normativo · Cusumano · Parke · Puerta de Bilbao · BEOTIBAR Recycling · Trienekens · Global Data Media Tech · guuk

16 · SCHMIDT · SUMIGAS Alquilamos soluciones · EKIDOM · ENKARKI · Hambueysería Amaren · asebal · Grupo Eleyco Taldea · videoriders · Flores de Queso Cheese Flowers · DINOF Oficinas que inspiran

Datcon Norte · Jajoan tailoring · Mini Enekuri Motor · RAC Vasco Navarro · Zubiarte Shopping Center · Prosegur Seguridad de confianza · Soleto bus · Clínica Bilbao · palsofa · MRW · ELEKTR.ART

OBRAMAT · Radio Popular · Ondoan close solutions · TeleTaxi Bilbao · BOSLAN Ingeniería y Consultoría · Grupo LOGI · N·OSES · El Club ¿Vienes? · ZITRO · SAMAR Foto · Video · Imagen Digital

Kitu · Cocinados Casado · Aplicaciones Melchor López, S.L.U. · Metales Bolueta, s.a. · INELCO 2001 · Ukai · Cámara Bilbao · Club Deportivo Bilbao

wakkeit.com · Frutas y Verduras Landako · Grupo Urbegi · Arrese 1852 · La Guía del Ocio de Bilbao y Bizkaia

FUNDACIÓN
BILBAO BASKET
FUNDAZIOA

**Bilbao Basket Fundazioaren 2024-2025 denboraldiko Memoria-Txostena**

Txosten horretan Marketin Departamentuak eta Klubaren Diseinu Departamentuak parte hartu dute, fundazioaren zuzendaritzak koordinatuta. Memoria ekoizpen-baliabideak eta baliabide propioak soilik erabiliz egin da.

Txosten hau bereziki online bistaratzeko diseinatu da. Iraunkortasuna sustatzeko eta ingurumen-inpaktua murrizteko, ez da komeni inprimatzea. Gainera, txosten hau gure webgunean dago eskuragarri, PDF formatuan, erabilerraztasun-irizpideak betez.

**Bilbao Basket Fundazioa**
Kale Nagusia Don Diego López de Haro 80
48011, Bilbo
Telefonoa: 944 255 976
www.bilbaobasket.biz

Txosten hau www.bilbaobasket.biz -en dago eskuragarri.



# Eskerrik asko!

BILBAOBASKET

surne
seguros & pensiones